


Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen bi herenek diote botoa emango dutela datorren maiatzaren 25ean, Europako Parlamenturako hauteskundeetan

Europako albisteez interesatuta dauden gazteen ehunekoa nabarmen igo da

Gazteen Euskal Behatokiak datorren maiatzean izango diren Europako hauteskundeetan botoa emateko asmoa duen galdetu dio Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarri bati. Gazteen % 41ek konbentziturik esan dute botoa ematera joango direla eta beste % 25ek agian baietz. Portzentaje hauek elkarri gehituta, espero daiteke maiatzaren 25ean Euskadiko gazteen bi herenek (% 66k) hauteskundeetan parte hartuko dutela.

Aldiz, % 13k segurtasunez diote ez direla botoa ematera joango eta % 9k agian abstentzioaren alde egingo dutela. Gainerako % 12k ez dakite zer egingo duten.




Neskek mutilek baino neurri handiagoan adierazi dute botoa ematera joango direla: nesken % 71k baieztatu dute botoa emango dutela, seguru edo agian. Ehuneko hori % 62raino jaisten da mutilen kasuan.

Goi-mailako ikasketak (unibertsitate-ikasketak nahiz goi-mailako heziketa-zikloak) amaituta dituztenek zein ikasten ari direnek, hein handiagoan diote botoa ematera joateko asmoa dutela (% 71), ikasketa-maila apalagoa (derrigorrezkoak, Batxilergoa edo erdi-mailako heziketa-zikloak) dutenek baino (% 47).

Adinari edo bizi diren lurralde historikoari erreparatuta, ez dago alderik gazteek botoa emateko asmoari dagokionez. Gazteek Europako albisteez duten interes-mailan eta aurreko hauteskundeetako parte-hartze mailan daude alderik handienak.

Euskadiko gazteek Europar Batasuneko jardura politikoan, gertakarietan eta albisteetan duten interesa nabarmen igo da azken urteotan, areago, Europako Parlamenturako hauteskundeak heltzear dauden une honetan: 2008an, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 29k esaten zutenez, gai horrekin oso edo nahiko interesatuta zeuden; 2013ko amaieran, ordea, ehuneko hori % 50 izan da. Hau da, Euskadiko gazteen erdiak Europako gertakariez interesatuta daude.

Europar Batasuneko jardura politikoan eta eguneroko gertakarietan oso edo nahiko interesatuta dauden gazteen artean, % 80k diote botoa ematera joango direla, seguruenik edo agian. Gai horietan interes gutxi edo batere ez dutenen artean, erdiek baino gehiagok botoa emango dutela esan dute, baina ehunekoak apalagoak dira (% 53).



Aurreko hauteskundeetan parte hartu izanaren eragina aztertu ahal izateko, 18 urteko gazteak ezabatu dira azterketatik, adin horretako pertsonak ez dutelako aukerarik izan orain arte inongo hauteskundetan bozkatzeko.

Aurreko hauteskundeetan botoa eman dutela diotenen hiru laurdenek erantzun dutenez, oraingoan ere hauteskunde-mahaietara hurbilduko dira (% 74). Aurreko hiru urteetan hauteskundeetan inoiz parte hartu ez dutela diotenen artean, gutxiengoa dira oraingoan botoa emango dutela esan dutenak (% 30).

Horrenbestez, ondoriozta daiteke ikasketa mailak, lehenago botoa eman izanak eta Europako gaietan interesa izateak eragin handia dutela gazteek datorren maiatzaren 25eko Europako Parlamenturako hauteskundeetan bozkatzeko ala ez bozkatzeko asmoan.

Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokia](#)k 2013ko abenduan Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko 1311 gazteri egindako inkestatik eratorri dira.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

